

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko otsailaren 21ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 21 de febrero de 2017, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko otsailaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz eman da 1/2017 zenbakidun kreditu aldaketa espediente onartzeko erabakiaren berri.

## **2.- DIRU LAGUNTZEN 2016-2019 PLAN ESTRATEGIKOA EGUNERATZEA.**

Udalbatzarrak, 2016ko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen:

*Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa.*

*Bigarrena.- Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.*

*Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.*

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez zenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horrek, 4. eta 12. artikuluetan, eranskineko dokumentuetara bidaliz, 2016ko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2017ko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitu behar dira.

Horregatik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ERANSKINEAN jaso bezala eguneratzea 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoaren ERANSKINAK, plana 2017ko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeko.

### **3- BERNABE ERRASTI JAUNAREN JABETZATIK MAZMELARAKO BIDERAINO DOAN BIDE ZATIAREN TITULARITATEA IKERTZEKO ESPEDIENTEA EBAZTEKO ERABAKI-PROPOSAMENA.**

#### **Azalpena:**

Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako bideraino doan bide zatiaren titularitatea ikertzeko bideratu eta tramitatutako espedientea ikusi da.

Eskoriatzako Udaleko Udalbatzarrak, 2016ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako bideraino doan bide zatiaren titularitatea ikertzeko espedientea hastea erabaki zuen, eta agindu zen iragarkiak jarri eta interesdunei eta bidearekin zerikusia duten erakundeei horren berri jakinarazteko.

Batzorde instrukziogileak 2016ko maiatzaren 20an hartutako erabakiz, 10 eguneko probaldia hastea erabaki zen, espedienteko interesdun guztiei jakinarazi zitzaiena.

Jendaurrean egoteko epean zein probaldian idatzizko alegazioak aurkeztu dira, eta interesdunek proposatutako frogak egin dira, espedientean ageri den emaitzarekin.

Espedientea interesdun guztien esku jarri ondoren, Javier Errastik alegazio idazkia aurkeztu du (sarrera erregistro zenbakia: 2.299).

Espedientean jasotako txosten teknikoak eta idazkariak 2017ko urtarrilaren 30ean egindako txostena ikusi dira.

Bidearen zati baten erabilera publikoa zehazteak ondasunen erregelamenduko 44. artikulua eta ondorengo babesean tramitatutako ikerketa espediente batean, bide horren titularitate publikoa zehaztea dakar.

Lekuko bidez egindako frogengatik ondorioztatzen da bide zati hori beti oinezkoentzat bakarrik erabili izan dela eta erabiltzen dela, eta motordun ibilgailuak une puntaletan eta gauza oso puntaletarako igaro direla. Eta hori horrela aitortzen du alegatzaileak berak ere bere idazkian:

- *“Cuando BIDEGI ha realizado las obras, por ese camino han pasado diferentes vehículos, entre otros alguna excavadora”.* Adierazpen horrekin baieztatzen da bidea aldi baterako erabili zela, autopistarekin lotutako obra batzuk egiteko hortik igarotzea beharrezkoa izan zenean.

- *Por ese camino pasaban, los del caserío Iturralde (la familia de Pedro Lasagabaster, su padre, su abuelo, etc.), los del caserío Iturralde de abajo (la familia de Angel Lasagabaster), los del caserío Boliña (la familia de Felix Berasaluce) para trabajar en las piezas, montes y pasaban a pie, con animales, carros,...* Egia bada ere Pedro Lasagabasterrek bere aitorpenean aitortu zuela

behin edo behin traktorearekin pasatu zela, egia da ere adierazi zuela zailtasun handiak izan zituela bidetik igarotzeko. Ez da gauza ziurra bide horretatik pasatzen zirela esaten duten gainerakoek motordun ibilgailurik erabiltzen zutenik.

*- Por ese camino han pasado camiones, ya que en la pieza donde hoy tiene contruida la vivienda Santiago Iparraguirre ha habido un vertedero. Udal honetan ez dago jasota legezko hondakindegirik egon denik hor, eta bertara joateko espedienteko gai den bide zatitik kamioiekin pasa beharrik zegoenik*

#### **Kontuan hartu beharrekoak:**

Toki-erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko (BOE, 161. zka) 1372/1986 Errege Dekretuko 45. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa jarraitutako prozedurari buruz eta espedientean betetako tramiteei buruz.

Toki-erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 53. artikuluan ezarritakoa Udalbatzarrak duen eskumenaz ikerketa espedientea ebazten duen erabakia hartzeko eta ebazpenaren edukiaz, aldekoa izanez gero.

Aipatutako arauak ikusita, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Javier Errastik sarrera erregistroko 2.299. idazkian aurkeztutako alegazioak neurri batean onartzea, eta zentzu horretan, AITORTZEA Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako bideraino doan bide zatia titularitate publikokoa izan dela bertakoek gogoratzen dutenetik, eta horrela dela gaur egun ere.

**Bigarrena.-** Erabaki honen aurrekarietan azaldutako arrazoiengatik, ezestea Javier Errastik sarrera erregistroko 2.299. zenbakia duen idazkian bide zatia oinezkoentzat bakarrik mugatzeari buruz aurkeztutako alegazioa.

**Hirugarrena.-** ZEHAZTEA aipatutako bide zatia beti oinezkoentzat bakarrik izan dela eta dela, eta motordun ibilgailuak ezin direla bertatik igaro.

**Laugarrena.-** Bidea osorik eta xehetasunez jasoko duen txosten deskribatzailea egiteko eskatzea udal zerbitzu teknikoei, tasatu ondoren, Udaleko Ondasunen Inbentarioan sartzeko.

**Bosgarrena.-** Erabaki hau interesdun guztiei jakinaraztea, adieraziz honen aurka berraztertzeko errekurtoa jar diezaioketela Udalbatzar honi hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtoa bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko auzietarako Donostiako dagokion Auzitegian, interesdunek egoki irizitako bestelako egintzarik egitearen kaltetan gabe.

Diktamena botoetara jarri aurretik, Alkateak hitz egiteko txanda eman du, eta bertaratutako zinegotziek ez dutenez ezer esan, Javier Errastiri (espedientearen parte interesduna izan eta ikusleen artean dagoena) eman dio hitza berak egoki iritzitakoa adierazi dezan. Ondoren transkribatzen da Errasti jaunak esandakoa: *“esan nahi dut pozik nagoela, 9 urteren ondoren -2008an hasi nintzen- aitortzen delako urte guzti hauetan defendatu dudana zuzena dela. Hala ere, badut samin bat ikustean hasieratik jakinekoa zen honen denaren ostean, Udalak ez duela borondaterik izan gai hau konpontzeko, denek zekitelako hori publikoa zela, kanpokoren batek izan ezik – PSOEkoaz ari naiz, Zumarragakoa zena eta bidea ez zuena ezagutzen–; gainerakoek, gehienak behintzat, bazekiten zer zegoen. Erabaki proposamenari dagokionez, trafikoaren antolaketa arautzen duen hirugarren puntuari dagokionez, esan behar dut harritzen nauela hori sartu izana. Ez dut eztabaidatuko inola ere bide baten trafikoa eta erabilera arautzeko Udalak duen ahalmena. Baina, ez nago ados hori espedientearekin batera joatearekin. Espedientearen helburua bakarra da: bidearen titularitate publikoa edo pribatua erabakitzea. Ez dut uste ere prozedura egokia denik mota horretako araudi bat egiteko, uste dut horrek prozedura konplexuagoa eskatzen duela. Uste dut erabakia ez dela baliozkoa izango, ez dagoelako gai zerrendaren barruan. Idazkariaren txostenean ondo jasotzen den bezala, justifikazio bat behar da erabilera mugatzeko, ibilgailuak bidetik ibiltzea mugatzeko. Ez dut uste justifikazioa izan behar denik Javier Errastiri bidea erabiltzea galeraztea, bide horrek hondakindegiko obrak egin baino lehen behar besteko zabalera eta ezaugarriak zituenean bere jabetzara ibilgailuz sartzeko. Eta are gutxiago sinisten dut arrazoiak proposamenean jarritako horiek direnik. Arrazoiak horiek badira, kontra egitea oso erraza izango da. Uste dut espediente honetan zehar inork ez duela eskatu bide horren erabilera arautzerik, ez dut gogoratzen Eskoriatzako Udalaren inolako erabakirik bide horren erabileraz, dagoena da lekuko batzuk esan dutela bide horretatik bakarrik pertsonak igarotzen ikusi dituztela, baina, hori zuzena ez dela ikusten da jasotako dokumentazioan, eta bakarrik pertsonak igarotzeak ez dio oinezkoentzako izaera ematen bideari, horretarako Udalaren berariazko erabakia behar baita, bere prozedura egokiarekin. Nik, ondorio bezala, oso garbi dut zein izan behar den Udalaren erabakia, ez dut ulertzen zergatik sartu den saltsa horretan, badakit eskubidea duela bere erabakiak hartzeko, baina, uste dut hori ez dela zuzena eta nire interesak babestuko ditut. Bakarrik gauza bat gogorarazi nahi dut, ez direla gauza bera “indarraren arrazoiak” eta “arrazoiaren indarra”. “Indarraren arrazoiak”, Udal honen gehiengoa edo ahobatezkotasuna; eta “arrazoiaren indarra” beste gauza bat da, hori da nik nuena prozeduera hau hasi nuenean; eta gaur, hau onartzen bada, arrazoiak emango zait.*

*Hori guztiori esanda, hitz egiteko bere txanda amaitu du, eta esan du prest dagoela gai horri buruzko edozein galdera erantzuteko.*

Alkateak eskertu egin dio esandakoa eta baita orain arte eta espedientearen zehar aurkeztu dituen idazkietan edozertan laguntzeko izan duen prestasuna.

Eskerrak eman dizkie ere espedienteen zuzenean parte hartu duten zinegotziei, gaiari denbora eta ahalegina eskaini diotenak.

#### **4.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboiei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

<b>KONTZEP/ EPEA/ ZENB.</b>	<b>ZENBA TEKOA €</b>	<b>ERREK .</b>	<b>KOSTA K</b>	<b>ZERGADUNA</b>	<b>ZERGATIA</b>
002/201401/1899	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Jarduera gabeko lokala
002/201402/1895	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Jarduera gabeko lokala
002/201501/1892	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Jarduera gabeko lokala
002/201502/1887	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Jarduera gabeko lokala
002/201601/1886	168,47			URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Jarduera gabeko lokala
002/201602/1885	168,47			URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Jarduera gabeko lokala
Isuna/2016/258	50,00			DIEZ CABALLERO ESTIBALIZ	Multa hau ordaindu zuten 2017/01/05ean, Udaltzaingoan. Urte bukaerako koadrea egiterakoan ezin genuen ordaindutzat eman isun hau eta automatikoki EXEKUTIBAREN kargo

KONTZEP/ EPEA/ ZENB.	ZENBA TEKOA €	ERREK .	KOSTA K	ZERGADUNA	ZERGATIA
					batean sartu da exekutibari dagokion igoerarekin.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**5.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2016ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**6- HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Garapen Jasangarria batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **7.- ERAKUNDE ADIERAZPENA EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ:**

### **“Martxoak 8: 8 printzipio ordezkari eta erakunde baterako”.**

*Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako erakunde adierazpen hau onartzea ERABAKI DU:*

#### **Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio**

“Emakume gutxi daude ordezkari udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasuneko parte-hartzerako arazo espezifikoak aurre egin behar izaten diete”. Hori jaso zuen Inger Lingek<sup>1</sup> Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkari politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkari eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, “euskarri-erakunde guztiek, beren zuzendaritza-erakunde eta organo kolegiatuak kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arazo neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte”. Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkari dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako

---

1

Inger Linge Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko genero berdintasunerako bozeramailea da.



zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago irauan ere.

Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzeta eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politikan.

Egoera horren JAKITUN, **Eskoriatzako Udalak** Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoetan izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuena edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bitzeta pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren araberako neurri zuzentzaileak ezartzeko.
5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeak eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeak eskolako programan parte har dezaten ahalbidetzea.
6. Udalerriko emakumeen ahaldundutza eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengo taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
8. Udaletako berdintasun sailtan eta gainerako udal sailtan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:55ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 16 de febrero de 2017 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

También se da cuenta de forma expresa de la resolución aprobatoria del expediente de modificación de créditos n.º 1 /2017.

## **2.- ACTUALIZACION DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2016-2019**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 23 de febrero de 2016 adoptó los siguientes acuerdos:

*Primero: Aprobar inicialmente el Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 del Ayuntamiento de Eskoriatza.*

*Segundo: Someter dicho Plan a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.*

*Tercero: De no producirse sugerencias o reclamaciones, dicho Plan se entenderá definitivamente aprobado sin necesidad de nuevo acuerdo*

No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna en relación a la aprobación inicial, y al amparo de lo previsto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en fecha 29 de octubre de 2013 devino en definitivo.

Dicho Plan, en sus artículo 4 y 12, remitiéndose a los Anexos del documento, contempla las ayudas previstas para el ejercicio 2016.

Aprobado el Presupuesto correspondiente al ejercicio 2017, es preciso adecuar los ANEXOS del plan al contenido de dicho Presupuesto.

Por cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, por unanimidad el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Actualizar en los términos que constan en el ANEXO a la presente los ANEXOS del Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 y al objeto de adecuar dicho plan al contenido del Presupuesto del ejercicio 2017.

### **3.- PROPUESTA DE ACUERDO RESOLUTORIO DEL EXPEDIENTE DE INVESTIGACIÓN DE OFICIO DEL TRAMO DE CAMINO QUE PASANDO POR DELANTE DE LA PROPIEDAD DE D. BERNABE ERRASTI VA HASTA LA CARRETERA DE MAZMEALA.**

Visto, el expediente instruido y tramitado de investigación de la titularidad del del tramo del camino que, pasando por delante de la propiedad de D. Bernabé Errasti, va hasta la carretera a Mazmeala.

**Resultando**, que el Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Eskoriatza en la Sesión celebrada el día 15 de marzo de 2016 adoptó acuerdo de incoar expediente para la investigación de la titularidad del tramo del camino que, pasando por delante de la propiedad de D. Bernabé Errasti, va hasta la carretera a Mazmeala, ordenándose las correspondientes publicaciones y notificaciones a los interesados y organismos afectados.

**Resultando**, que por acuerdo de la Comisión Instructora de fecha 20 de mayo de 2016 se acordó la apertura de periodo de prueba por plazo de 10 días, que se notificó a todos los interesados en el expediente.

**Resultando**, que tanto en el plazo de exposición pública como en el periodo de prueba se han presentado escrito de alegaciones y se han practicado las pruebas propuestas por los interesados con el resultado que consta en el expediente.

Vistos, el escrito de alegaciones presentado por Javier Errasti (Nº Registro 2299) tras la puesta de manifiesto del expediente a todos los interesados.

Vistos, los informes técnicos que obran en el expediente, así como el informe de Secretaria emitido con fecha 30 de enero de 2017.

**Resultando** que determinar el uso público del tramo del camino en un expediente de investigación tramitado al amparo de los art. 44 y siguientes del Reglamento de Bienes implica determinar la titularidad pública del mismo.

**Resultando** que de las pruebas testificales practicadas se llega a la conclusión de que dicho tramo ha servido siempre y sirve en exclusiva para peatones; y que el tránsito de vehículos de motor ha sido en nomentos puntuales y para actuaciones también muy puntuales . Y así lo reconoce el propio alegante en su escrito:

- *“Cuando BIDEGI ha realizado las obras, por ese camino han pasado diferentes vehículos, entre otros alguna excavadora”. Con dicha afirmación se asevera que el paso se dió de forma temporal, mientras fue necesario acceder por dicho camino para acometer unas obras vinculadas a la autopista.*

- *Por ese camino pasaban, los del caserío Iturralde (la familia de Pedro Lasagabaster, su padre, su abuelo, etc.), los del caserío Iturralde de abajo (la familia de Angel Lasagabaster), los del caserío Boliña (la familia de Felix Berasaluce) para trabajar en las piezas, montes y pasaban a pie, con animales, carros,...* Si bien es cierto que Pedro Lasagabaster reconoció en su declaración que alguna vez pasó con el tractor, también es cierto que manifestó que pasó con muchas dificultades. Del resto de personas que dice que pasaban por dicho camino no hay constancia de que lo hicieran en vehículo de motor.

- *Por ese camino han pasado camiones, ya que en la pieza donde hoy tiene contruida la vivienda Santiago Iparraguirre ha habido un vertedero.* En este Ayuntamiento no hay constancia de la existencia de un vertedero legalizado al que se haya accedido con camiones por el tramo de camino objeto de expediente.

**Considerando**, lo dispuesto en los artículos 45 y siguientes del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio (B.O.E. Nº 161) por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, en relación al procedimiento seguido y trámites observados en el desarrollo del expediente.

**Considerando**, lo dispuesto en el artículo 53 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, tanto en relación a la competencia del Pleno para la adopción del acuerdo que resuelve el expediente de investigación como al contenido del mismo en el supuesto de ser favorable.

Vistos los preceptos citados, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Estimar parcialmente las alegaciones presentadas por Javier Errasti por escrito con Nº de Entrada 2299 y en tal sentido, y DECLARAR que el tramo del camino que, pasando por delante de la propiedad de D. Bernabé Errasti, va hasta la carretera a Mazmeala ha sido, desde que se recuerda, y es en la actualidad de titularidad pública.

**Segundo:** Desestimar, por las razones que expuestas en los antecedentes de este acuerdo, las alegaciones que presenta Javier Errasti por escrito con Nº de Entrada 2299 en relación a la limitación del uso del tramo del camino para el tránsito peatonal.

**Tercero:** DETERMINAR que el uso del referido tramo de camino ha sido siempre y es exclusivamente para peatones, no siendo transitable para vehículos de motor.

**Cuarto:** Requerir de los servicios técnicos municipales la realización de un informe descriptivo del camino con su recorrido completo y pormenorizado para proceder a su inclusión en el Inventario de Bienes del Ayuntamiento, previa su tasación.

**Quinto:** Notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el expediente administrativo, haciéndoles saber que contra el mismo podrán interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su notificación ante este Pleno o recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado del mismo orden de los de Donostia-San Sebastian que corresponda, sin perjuicio del ejercicio de aquellas acciones que estime oportuno.

Antes de someter el dictamen a votación, el Alcalde ha abierto el turno de intervenciones y, no habiendo intervención alguna por parte de los concejales presentes, ha concedido la palabra a Javier Errasti ( parte interesada en el expediente y presente entre el público) para que manifieste lo que estima oportuno. A continuación se transcribe la intervención del Sr. Errasti: *“Quiero decir que muestro mi satisfacción porque después de 9 años, empecé en el 2008, se reconoce que lo que he defendido a lo largo de estos años es lo correcto. Tengo un sabor amargo al comprobar que después de todo esto , que se sabía desde el primer día, no ha habido voluntad del ayuntamiento de resolver el tema. Porque todos sabían que esto era público, quitando alguno que era de fuera, y me refiero al del PSOE que era de Zumárraga y no conocía el camino; el resto, por los menos la mayoría, sabía lo que había. En cuanto a la propuesta de acuerdo, en relación al punto tres donde se regula la ordenación del tráfico, decir que me sorprende que se incluya. No discuto en ningún momento la postestad del ayuntamiento de regular el tráfico y el uso de un camino. Mi desacuerdo es que eso no debe de ir con el expediente. El objetivo del expediente es uno, que es determinar la titularidad pública o privada del camino. Tampoco creo que el procedimiento es el adecuado, creo que esto requiere un procedimiento más complicado; para hacer una regulación de ese tipo. Creo que el acuerdo no va a ser válido porque no está incluido dentro del orden del día. Como bien se dice en el informe de la secretaria, tiene que haber una justificación para limitar el uso, la circulación rodada por el camino. No creo que la justificación sea impedir que Javier Errasti pueda utilizar un camino que , antes de que se hicieran las obras de la bajante, tenía las características y anchura suficiente para acceder con un vehículo a su propiedad. Y desde luego menos me creo que las razones sean esas que se ponen en la propuesta, si las razones son esas la defensa será muy fácil. Creo que a lo largo de todo este expediente nadie ha pedido que se regule el uso de ese camino, no recuerdo ningún acuerdo del ayuntamiento de Eskoriatza en el que se haya pronunciado sobre el uso del camino, lo que sí hay son afirmaciones de algunos de los testigos diciendo que por ese camino sólo han visto pasar personas, pero eso entre la documentación aportada se ve que no es correcto, y el hecho de que sólo hayan pasado personas no le da carácter peatonal al camino, sino que para eso hace falta un acuerdo explícito del ayuntamiento, con su procedimiento adecuado. Yo, como conclusión, tengo muy claro cual va a ser la decisión del ayuntamiento, no entiendo porqué se ha metido en este berenjenal, se que tiene derecho a tomar sus decisiones, pero yo considero que esto no es lo correcto y ya defenderé mis intereses. Solo recordar una cosa, que no es lo mismo “la razón de la fuerza” que la “la fuerza de lar razón”. “La razón de la fuerza” es la mayoría o la unanimidad de este ayuntamiento y “la fuerza de la razón” es otra cosa, es lo que tenía yo cuando inicié este procedimiento y que hoy, si se aprueba esto, se me dará la razón.”* Dicho cuanto antecede, termina su intervención mostrando su total disposiciones a responder a cuantas cuestiones o preguntas se le planteen en relación a este asunto.

El Alcalde agradece su breve intervención, así como la disposición que a colaborar ha mostrado ahora y en los escritos que ha presentado a lo largo del expediente. También

agradece a los corporativos que han intervenido de forma directa en el expediente, quienes ha dedicado al asunto tiempo y esfuerzo.

#### **4.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS**

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobernación y Finanzas, el Pleno , por unanimidad, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro, por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en el listado siguiente:

<b>CONCEPTO/ PLAZO/ NÚMERO.</b>	<b>CANTIDA D €</b>	<b>RECARG O</b>	<b>COSTA S</b>	<b>CONTRIBUYENTE</b>	<b>MOTIVO</b>
002/201401/189 9	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Local sin actividad
002/201402/189 5	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Local sin actividad
002/201501/189 2	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Local sin actividad
002/201502/188 7	168,47	33,69	4,75	URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Local sin actividad

CONCEPTO/ PLAZO/ NÚMERO.	CANTIDAD D €	RECARGO	COSTAS	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
002/201601/188 6	168,47			URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Local sin actividad
002/201602/188 5	168,47			URIBE-ETXEBARRIA ETXEBARRIA A.	Local sin actividad
Multa/2016/258	50,00			DIEZ CABALLERO ESTIBALIZ	Esta multa se abonó el 05/01/2017 en la policía municipal.  Al realizar el cuadro de fin de año no pudimos dar por abonada esta multa, y automaticamente se metió en un cargo ejecutivo, con la subida correspondiente a dicha ejecutiva.

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

**5.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al cuarto trimestre de 2016

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**6.- APROBACION INICIAL DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS A LA APERTURA DE NUEVOS ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES O DE SERVICIOS MEDIANTE LA PUESTA EN VALOR DE LOCALES VACIOS.**

Todos los presentes conocen la propuesta de Bases cuya aprobación se propone desde la Comisión Informativa de Desarrollo Sostenible .

Previa votación, el pleno por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Aprobar inicialmente las BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS A LA APERTURA DE NUEVOS ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES O DE SERVICIOS MEDIANTE LA PUESTA EN VALOR DE LOCALES VACIOS.

**Segundo:** Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Cuarto:** Facultar al Sr. Alcalde para que, aprobadas dichas BASES convoque las ayudas por las mismas reguladas y autorice el gasto correspondiente.



## **7.- DECLARACION INSTITUCIONAL SOBRE EL DIA INTERNACIONAL DE LA MUJER: “8 de marzo: 8 principios para una representación equilibrada”.**

*Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno acuerda aprobar la siguiente declaración institucional:*

### **8 de marzo: 8 principios para una representación equilibrada**

“Las mujeres están infrarrepresentadas en la toma de decisiones políticas a nivel municipal y enfrentan dificultades específicas para el acceso y participación igualitaria en la política local”. Así se establece en el Informe presentado por Inger Linge<sup>2</sup> en la 31ª sesión del Congreso de Autoridades Locales y Regionales del Consejo de Europa sobre la participación y representación política de las mujeres a nivel local y regional celebrada el pasado 20 de octubre.

La participación equilibrada de mujeres y hombres en la toma de decisiones es un requisito previo de cualquier sociedad democrática. Así se afirma en la Carta Europea para la Igualdad de mujeres y hombres en la vida local y se insta a que los gobiernos locales tomen todas las medidas y adopten las estrategias necesarias para promover una representación y una participación equilibradas de mujeres y hombres en todos los ámbitos locales de toma de decisiones.

Entre estas medidas, el artículo 23 de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres aprobada por el Parlamento Vasco establece que “todos los poderes públicos vascos deben promover que en el nombramiento y designación de personas para constituir o formar parte de sus órganos directivos y colegiados exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. A tal fin, adoptarán las medidas normativas o de otra índole necesarias”. La citada Ley también hace referencia a la presencia equilibrada de mujeres y hombres en los órganos de dirección de las asociaciones y organizaciones profesionales, empresariales, de economía social, sindicales, políticas, culturales o de otra índole previendo que las administraciones públicas vascas puedan adecuar las subvenciones que les correspondan en función de la adopción de medidas que posibiliten un incremento de la presencia de mujeres en aquellos órganos de dirección en los que están infrarrepresentadas y no puedan conceder ayudas a las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento.

En el ámbito municipal, sólo un 24,7% de los consistorios de la CAE son presididos por alcaldesas y éstas representan un 18,82 % de la población vasca. En 2015, los partidos políticos han optado por colocar a mujeres como cabezas de lista solamente en el 32,58% de las listas electorales; y en cuanto a la permanencia, las mujeres tienden a ascender a menor ritmo y permanecer menos tiempo en posiciones de liderazgo.

Entre los sindicatos mayoritarios de Euskadi, sólo uno tiene a una mujer como Secretaria General y ninguna de las cuatro entidades financieras con sede en Euskadi tienen una presidenta, estando las mujeres representadas apenas en un 22,6 % en sus órganos de decisión más importantes.

Si bien no hay diferencias relevantes de género en cuanto al porcentaje de participación de mujeres y hombres en asociaciones, las mujeres son mayoría en asociaciones vinculadas con su rol tradicional femenino: asociaciones educativas, religiosas, de cooperación al desarrollo y asistencia social mientras que tienen menor prevalencia en las deportivas, políticas, sindicales, profesionales, artísticas y de vecinos y vecinas.

---

2

Inger Linge es portavoz para la Igualdad de género del Congreso de Autoridades Locales y Regionales del Consejo de Europa

Las asociaciones de mujeres, por su parte, cuentan en general con presupuestos y capacidad de incidencia limitadas en las políticas municipales.

CONSCIENTE de esta situación, **el Ayuntamiento de ESKORIATZA** asume las recomendaciones del Informe europeo y los compromisos derivados de la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local y las obligaciones establecidas en la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres y **se compromete a:**

1. Garantizar la representación equilibrada de mujeres y hombres en sus órganos consultivos y de toma de decisiones, así como en sus nombramientos para cualquier organismo local, de forma que ninguno de los sexos esté representado por menos de un 40% (a excepción de las estructuras específicas de fomento de la participación de las mujeres).
2. Establecer mecanismos para evitar que las representantes elegidas se vean afectadas por formas estereotipadas en el reparto de competencias o atribución de funciones, o por cualquier otra forma de discriminación o acoso.
3. Introducir medidas que permitan conciliar la participación con la vida personal y familiar tanto a través de sistemas de horarios y métodos de trabajo como a través de sistemas de apoyo al cuidado.
4. Recoger, procesar y hacer públicas estadísticas desagregadas por sexo, de forma sistemática, para dar seguimiento a la evolución de la participación de las mujeres a nivel local y desarrollar medidas correctoras en base a este análisis.
5. Fortalecer espacios y redes que fortalezcan la participación de las mujeres tales como Casas de las Mujeres, Escuelas de Empoderamiento y/o Consejos de Igualdad Municipales; y facilitar el acceso a programas como la escuela de empoderamiento para mujeres electas 'Virginia Woolf Basqueskola'.
6. Implementar acciones específicas que faciliten el empoderamiento y el fomento de la participación sociopolítica de las mujeres del municipio, en particular de aquellas pertenecientes a grupos minoritarios de forma inclusiva.
7. Garantizar que los procesos de participación ciudadana desarrollados en el municipio incorporen la perspectiva de género.
8. Dotar de los recursos necesarios a las áreas de igualdad y resto de áreas municipales para poder llevar a cabo estas medidas.

*Con el mismo objetivo de fortalecer la participación social y política de las mujeres instamos a los partidos políticos a que hagan suyos estos compromisos y adopten medidas que sean referenciales para otros agentes políticos y sociales.*

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:55 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**